

HAZI, HEZI, MEKAN IKASI

Plan Estrategikoa 2024-2028



AURKIBIDEA

1	SARRERA.....	1
2	MARKO ESTRATEGIKOA.....	2
3	MISIOA, BISIOA ETA BALIOAK.....	3
4	ARDATZ ESTRATEGIKOAK.....	4
5	HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	7
6	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK.....	8
7	EKINTZA-PLANA.....	16
8	PLAN ESTRATEGIKOAREN SEGIMENDUA.....	20
9	ERANSKINAK.....	21

1 SARRERA

Meka Lanbide Eskola Eusko Jaurlaritzaren titulartasun publikoko ikastetxea da, Elgoibarren kokatua, Debabarrena eskualdean. Besteak beste, erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak, espezializazio-programak, eskaintza partziala eta etengabeko eta lanerako prestakuntza eskaintzen ditu.

1899. urtean sortua, azken urteetan hazten ari da, eta gaur egun bi eraikin ditu, bata San Roke auzoan, eta bestea Albitxuri poligonoan. Ziklo-eskaintza oparoa du, eta hezkuntza berritzailea, berdintzailea eta gertuko tratua eskaintzen duen zentroa da.

Meka LHII-k, 2020an, hurrengo urteetan jorratu beharreko ildo estrategikoak erabakitzeko Plan Estrategikoa garatu zuen. Orain, 2024an, ikastetxeko zuzendaritzak datozen lau urteetarako plana berritzeko unean, ikastetxeak bere ildo estrategikoak birpentsatzeko baliatu nahi izan da.

Lanbide Heziketaren 6. Euskal Planaren markora egokitutako eta Mekako errealitatea aintzat hartuko duen plana da honakoa, eta prozesua hezkuntza-komunitatearen parte hartzearekin eta Elhuyarren bidelaguntzarekin egin da.

Prozesuaren abiapuntua izan da, batetik, Plan Estrategikoaren diseinuan parte hartuko duen Irakasleen Batzarra osatzea; bestetik, lurraldearen argazki sozioekonomikoa, ikasleen profilarren ezaugarriak eta ikastetxeko irakasle eta ikasleen iritziak jasotzen dituen [diagnostiko txostena](#) egitea.

Hortik abiatuta, marko estrategikoa eratzeko honako urratsak jarraitu ditugu:

- Misio, bisio eta balioak definitzea
- Definitutako bisio, misio eta balioak gauzatzeko ardatz estrategikoak identifikatzea
- Ardatz bakoitzeko helburu estrategikoak zehaztea
- Helburuak gauzatzeko proiektu estrategikoak identifikatzea eta hodiekin garatzeko ekintzak zehaztea

Txosten honek urrats horietako bakoitzean landutakoa jasotzen du, 2024-2028 eperako Plan Estrategikoa, alegia.

2 MARKO ESTRATEGIKOA

Plan Estrategikoak 8 ardatz estrategiko, 20 helburu estrategiko eta 50 proiektu estrategiko barnebiltzen ditu bere baitan. Proiektu estrategiko bakoitzak bere baitan ditu proiektua garatzeko ekintza desberdinak.



3 MISIOA, BISIOA ETA BALIOAK

Misioa

zer egiten dugu eta zergatik gaude hemen?

Mekan egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta aldaketara egokitzeko gai diren pertsonak prestatu eta hezten ditugu, horiek ibilbide eraginkorra eta ikuspegia kritikoa izan dezaten

Bisioa

nora iritsi nahi dugu?

Ikasleari gertuko tratua eskaini nahi dion ikastetxea izan nahi dugu, lan-merkatuaren eta jendartearen beharrei erantzungo dien gune berritzailea eta inklusiboa; Mekarentzat oinarrizkoak diren balioetan oinarritutako kalitatezko hezkuntza eskainiko duen erreferentziazko ikastetxea izan nahi dugu.

Balioak

gure ekintzen atzean jarduteko zein modu dago?

- **Inklusiboa:** ikasleen beharrei erantzuten diena, modu pertsonalizatuan
- **Berdintasuna:** ikasle eta irakasleen artean berdintasunean oinarritutako harremanak ematea
- **Jasangarria:** bizitza jasangarriago baten alde egingo duena
- **Elkarlana, elkarlaguntza eta konpromisoa:** hezkuntza komunitate osoarekin eta kanpoko erakundeekin elkarlana sustatu, eta konpromisoa eta ardura duena
- **Komunikazioa:** konfiantza eta inplikazioa ardatz izango dituena
- **Berrikuntza digitala eta teknologikoa:** gizartearen eta lan-merkatuaren beharretara egokitzen dakiena
- **Pentsamendu kritikoa:** ikuspegi kritikoan sakonduko duena
- **Euskara ardatz:** euskaraz lan egin eta ikasle zein irakasleengan euskaraz aritzeko aukerak sustatuko dituena

4 ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Ardatz bakoitzaren deskripzioa jaso dugu atal honetan:

1. IKASTETXE INKLUSIBOA, PAREKIDEA ETA EUSKALDUNA

2. PERTSONAK PRESTATU ETA HEZI, METODOLOGIA BERRITZAILEEKIN

3. , BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA ETA LANKIDETZA

4. AZPIEGITURA ETA ESPAZIOAREN BERRANTOLAKETA

5. TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA

6. HEZKUNTZA-KOMUNITATE SENDOA, HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARLANA OINARRI

7. INTERNAZIONALIZAZIOA

8. BIOZIENTZIAK ETA JASANGARRITASUNA

1. IKASTETXE INKLUSIBOA, PAREKIDEA ETA EUSKALDUNA

Ikasle profilean arreta jarri eta profil guztiei Lanbide Heziketaren ateak zabaltzea: genero-, jatorri-, hizkuntza- eta gaitasun-aniztasunak aintzat hartzea. Aukera berdintasuna bermatzeko eta ikasle bakoitzaren premiak modu ekitatibo eta efektiboan asetzeko hezkuntza ingurune egokituak sortzea, horretarako beharrezkoak diren baliabideak antolatuz.

Besteak beste, genero-berdintasuna sustatzea ikasleen artean eta irakasleen artean, ikastetxeak martxan duen berdintasun-planarekin jarraituz. Berdintasunari ertzi guztietatik heltzen jarraitzea eta martxan den Berdintasun Plana eremu guztietara zabaltzea: CV, karguetan errepresentazioa emanez, ekintzak sortuz, inplikazioa.

Bestalde, ikasle eleaniztunak heztea, nazioarteko ikasketa programetan parte hartzeko gai direla bermatzeko. Euskararen biziberritzeari ekarpena egitea, ikasleen arteko hizkuntza-harremanak normalizatuz eta euskara lehenetsiz

2. PERTSONAK PRESTATU ETA HEZI, METODOLOGIA BERRITZAILEEKIN

Ikasleak, gaitasun teknikoetan ez ezik, zeharkakoetan ere heztea, ikuspegi kritiko, soziala eta humanoan ere heztea; profesional eta herritar arduratsu gisa prestatzeko. Irakaskuntza metodologia berrien implementazioarekin jarraitzea, eta orain artekoa ikuspuntu kritiko eraikitzaile batekin ebaluatzea.

3. BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA ETA LANKIDETZA

Gizartean ematen diren joerei adi, egitasmo berritzaile eta eraldatzaileak garatzea. Horretarako, irakasleengan eta ikasleengan talentu berritzailea garatzea eta inguruko enpresa eta eragileekin lankidetzan berrikuntzak garatzea.

Lankidetzaren esparruan, bereziki lan-munduarekin, lotura eta harremanak mantentzea eta elikatzea, harreman iraunkorrak izanez, talentua erakarriz, elkarlanean proiektuak garatuz, sinergiak aprobetxatuz... Ingurunearekiko harremanean, kanpora begirago komunikazio-estrategia eraginkorra izatea.

4. AZPIEGITURA ETA ESPAZIOAREN BERRANTOLAKETA

Ikastetxeak instalazio, ekipamendu, espazio eta azpiegitura berritzaile eta duinak izatea, eguneroko beharrei erantzungo dietenak.

5. TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA

Teknologiak, adimen artifizialak eta errealitate berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatzea, eta enpresek garatzen dituzten teknologiak iparrorratza izatea. Era berean, teknologiaren erabilerak sortzen dituen gizarte-arazoen inguruan kontzientzia piztea, eta egon daitezkeen arrakala digitala saihesteko eta horiei aurre egiteko hezkuntza-komunitateko kideak trebatzea.

6. HEZKUNTZA KOMUNITATE SENDOA, HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARLANA OINARRI

Pertsonen arteko harremanak indartzea eta zaintzea, eta mintegien artean talde-lana eta elkarlana sustatzea. Horrez gain, lanerako baldintza duinak sortzea, baliabide eta planifikazio eraginkorrek, bizitza jasangarriago baten alde. Eta horretarako barne-komunikazio sistema eraginkor bat izatea, eta ikastetxeko erabakiak hartzeko orduan, irakasle zein ikasleek parte hartze handiagoa izatea.

7. INTERNAZIONALIZAZIOA

Atzerriko mugikortasunak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu eskola eta ikasleei balio erantsia eskainiz. Ikasleak, esperientzia eta eleaniztasunean murgiltzeko, eta irakasleak harremanak eta formakuntza (teknikoa, eleaniztasuna,...) jasotzeko.

8. BIOZIENTZIAK ETA JASANGARRITASUNA

Ingurumen alderdien, gizarte alderdien eta alderdi ekonomikoen artean bizi kalitate hobea eta oreka lortzen lagunduko duen hezkuntza eredia sustatzea. Horrekin batera, Giza Garapen Jasangarriaren alde egingo duten lan-eremuak sortuz, eta horretarako Garapen Jasangarrirako Helburuak Mekara egokitzeko eta ikastetxean aplikatzeko bidea eginez.

5 HELBURU ESTRATEGIKOAK



Hazi,
hezi,
Mekan
ikasi!



bisioa

Ikasleari gertuko tratua eskaini nahi dion ikasketxea izan nahi dugu, lan-merkatuaren eta jendartearen beharrei erantzuneko gune berritzaile eta inklusiboa; Mekarentzat oinarritzako diren balioetan oinarritutako kalitatezko hezkuntza eskainiko duen erreferentziako ikasketxea izan nahi dugu.

misioa

Mekan egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta aldatetara egokitzeko gai diren pertsonak prestatu eta hezten ditugu, horiek ibilbide eraginkorra eta ikuspegia kritikoa izan dezaten.



balioak



PERTSONAK PRESTATU ETA HEZI, METODOLOGIA BERRITZAILEEKIN

- Metodologia aktibo kolaboratiboetan oinarritutako irakaskuntza garatzea, prentsamendu kritikoa erakitzzaileak bultzatuz eta balioetan heziz.

TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA

- Industria 4.0.-n urratsak ematea
- Ziklo bakoitzerako plan digitala sortzea
- Soluzio adimendunak eta teknologia berriak zaintza arloan murgiltzea

IKASTETXE INKLUSIBOA, PAREKIDEA ETA EUSKALDUNA

- Ikasleek kalitatezko prestakuntza berdintasunez eskuratzeko profil guztietako ikasleak identifikatzea eta ahal den neurrian hauei erantzuna emateko tresnak lantzea
- Hezkuntza komunitate osoan genero-berdintasuna sustatzea
- Euskararen biziberritzean ekarpena egitea, ikasleek arteko harremanak euskaraz izan daitezkeen sustatzea eta euskara lehenestea

HEZKUNTZA KOMUNITATE SENDOA, HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARLANA OINARRI

- Mintegien arteko elkarlana bultzatzea
- Irakasleek arteko harremanak bultzatzea eta elkar zaintzea
- Ikasketxearen partaidetza-ereduan sakontzea

INTERNAZIONALIZAZIOA

- Nazioarteko harremanak eta proiektuak garatzea
- Ikasketxea nazioartekotzerako gaitasun eta ibilbideetan prestatzea

AZPIEGITURA ETA ESPAZIOAREN BERRANTOLAKETA

- Beharrak nahiz epe laburreko aurreikuspenak aztertzea eta espazioak egokitzea
- Meka ingurune inklusiboa eta irisgarria izan dadin urratsak ematea

JASANGARRITASUNA ETA BIOZIENTZIAK

- Hezkuntza komunitatearen beharrak aseko dituen jasangarritasun plangintza garatzea, Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta.
- Biozientzian murgiltzen hasia.

BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA ETA LANKIDETZA

- Berrikuntzaren adiera irekitzea, gizarte berrikuntzan sakontuz
- Gizarte-beharrei erantzuneko gune berritzaileak garatzea
- Inguruko erakunde, ikasketxe eta enprekin harremana sendotzea eta proiektuak elkarlanean garatzea
- Gizarte-beharrei erantzuneko gune berritzaileak eta egokituak eskaintzea, hezkuntza-espazioak aztertzea eta baloratzea

6 PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

1. ARDATZA: IKASTETXE INKLUSIBOA, PAREKIDEA ETA EUSKALDUNA		
HELBURU ESTRATEGIKOAK (3)	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (8)	PROIEKTUAREN BARNEKO EKINTZAK (22)
1.1. Ikasleek kalitatezko prestakuntza berdintasunez eskuratzeko profil guztietako ikasleen premiak identifikatzea eta ahal den neurrian hauei erantzuna emateko tresnak lantzea	Tutorizazio pertsonalizatuan sakontzea	Pertsonen oinarritzko plana zehaztu Tutore administratiboaren eta tutore erreferentearen rolak bereizi eta landu, ikasleari jarraipen pertsonalizatua egiteko Egoera zaurgarrian dauden ikasleei eta familiei, beraien inguruko beka edo gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa eta aholkuak eman Egoera erregularizatu behar duten migratzaileei laguntzeko neurriak hartu
	Ikasleen orientazio profesional, akademiko zein pertsonalari erantzutea orientazio zerbitzuaren bidez	Jatorrizko ikastetxeekin zein erakundeekin zubiak eraiki, ikaslearen ibilbidea hobeto ezagutzeko Hezkuntza premia bereziak dituzten eta/edo hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen jarraipena egin Ikasleek ikasteko dituzten zailtasun egoerak detektatzea eta aztertzea eta aholkatzea antolamendu, metodologia edo neurri komenigarrien inguruan Ikasleen ongizaterako, ikasleen artean kalteberatasun fisiko edo mentaleko egoerak detektatzeko barne-prozedurak sortu Adikzio-substantzien abusua prebenitzeko prebentzio-kanpainak egin
	Baliabideak aztertu eta egokitzea, materialak zein pertsonalak	Irakasleek formakuntza jaso unean uneko beharren arabera Meka irisgarria izateko premiak ezagutu eta esku-hartzeak egin (material irisgarria...) Klase orduetan mugikorren erabileraren auzia eztabaidatzea (debekatu edo ez) eta gaia arautzea
1.2. Hezkuntza komunitate osoan genero-berdintasuna sustatzea	Berdintasun Plana berrikusi eta ikastetxean zabaldu	Helburu eta ekintzak berrikusi eta komunikatu
	Komunikazioan guztietan berdintasuna sustatuko duen hizkuntza erabilera bermatzea	Komunikazio ez sexista landu
	Hezkuntzan genero-desberdintasunak ezabatzea eta ziklo guztietan berdintasunez sartzeko aukera bermatzea	Gaia ikusarazi eta lantzeko estrategiak pentsatu
1.3. Euskararen biziberritzean ekarpena egitea, ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen sustatzea eta euskara lehenestea	Euskararen ezagutza eta erabileran eragitea, eta euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea.	Hezkuntza-komunitatean euskararen aldeko kontzientziazio-ekintzak egin (ikasleentzat erakargarri) Euskara erabiltzeko motibazioak landu, bereziki ikasleengan eragiteko Kurtsoa aurrera joan ahala gaztelerara joera ekiditeko saiakera egin Ikasleei errefortzu klaseak eskaini (euskara ikasteko orduak goizetan izatearen aukera baloratu) Irakasleak ahaldundu eta euskararen lidergoa beren gain hartzeko lanketa egin A ereduko zikloentzat oinarritzko hiztegi teknikoak sortu eta zabaldu.
	Euskara Batzordea irakasle eta ikasleez osatuak izatea	Euskara Batzordearen osaera berritu

2. ARDATZA: PERTSONAK PRESTATU ETA HEZI, METODOLOGIA BERRITZAILEEKIN		
HELBURU ESTRATEGIKOAK (1)	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (2)	PROIEKTUAREN BARNEKO EKINTZAK (7)
2.1. Metodologia aktibo kolaboratiboetan oinarritutako irakaskuntza garatzea, prentsamendu kritiko eraikitzaileak bultzatuz eta balioetan heziz.	Metodologia berritzaileak guztiz ezarri familia profesional eta ziklo guztietan	Metodologia berritzaileetan irakasleen etengabeko formakuntza bultzatu: Balioak 4.0 irakasleak jantzi
		Metodologia berrietan oinarritutako sareak sortu
		Ekintzailatza eta berrikuntza sustatzeko ekintza ezberdinak garatu urrats bat eta Ikasapresa proiektuen laguntzaz
		Eragin solidarioa izango duten proiektu propioak garatu
		Hezkuntza komunitatea balioetan hezi eta ikaskuntza prozesuari ikuspegi kritikoa, soziala eta humanoa eman. Balioak 4.0 garatu eta balioak 4.0 erronka eta metodologia ezarri
	Ebaluazio sistema hobetu	
	STEAM Hezkuntzan urratsak eman, emakumeengan bokazio zientifiko-teknologikoa pizteko eta STEAM gaitasunak teknologia erabiltzen ez duten beste ziklo batzuetara hurbiltzeko.	STEAM proiektuak garatu

3. ARDATZA: BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA ETA LANKIDETZA		
HELBURU ESTRATEGIKOA (5)	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (12)	PROIEKTUAREN BARNEKO EKINTZAK (22)
3.1. Berrikuntzaren adiera irekitzea, gizarte berrikuntzan sakonduz	Gizarteko beharrei erantzuten dien berrikuntza edo berrikuntza sozialaren kontzeptualizazioan sakondu	Gaiaren inguruan dagoen bibliografia eta eskualdeko praktikak ezagutu
	Mekak gizartean eragiten dituen aldaketa eta onurez jabetu eta sistematizatu	Mekak egiten duen gizarte berrikuntza zein den jakiteko tresna garatu
3.2. Gizarte-beharrei erantzungo dien berrikuntza garatzea	Irakasleon talentu berritzailea piztea	Formakuntza Lan giroa sustatu
	Gizarte-beharrak eta berrikuntzak ezagutzeko adimen tresnak indartzea eta horietan trebatzea	Zaintza panela INTOOL zabaltzen eta erabiltzen jarraitu Formakuntza
3.3. Inguruko erakunde, ikastetxe eta enprekin harremana sendotzea eta proiektuak elkarlanean garatzea	Ikerketa aplikatuko eta berrikuntzako proiektuetan parte hartzea	Arlo desberdineko proiektuetan parte hartu eta zabaldu TKgune proiektuaren baitan lan-aukera ezberdinak aztertu eta aurrera eraman
	Enprekin etengabeko harremana mantendu	Eskolara ekarri eta "kaptazio" hitzaldiak eman, erronka ideiak enpresetatik hartzea, erronkaren aurkezpena enpresan egitea...
		Bisitak antolatu enprekin garatzen dituzten teknologia eta metodologia berriak ezagutzeko
		Debegesak antolatzen duen azoka hobetzeko aukerak aztertu
	Ikastetxeen arteko harremanak sendotu, praktika onak sustatu eta topaguneak antolatu	Enplegurik ez daukaten ikasleei aukerak eskaini eta lan-ingurune segurua eskaini lan-poltsaren bitartez
		Jardunaldi desberdinetara joan (FyF, BIEMH...)
		Arlo ezberdinetan erreferente diren ikastetxeekin material/metodologia/funtzionamenduari buruzko elkartrukeak egitea (Estatu mailakoak zein atzerrikoak)
Komunitateari zerbitzu bat emanez ikasteko proiektuak garatu (Ikaskuntza-zerbitzua)	Lanbide Heziketako ikastetxeekin elkarlanean berrikuntza/nazioartekotze proiektuak garatzea (ikasle zein irakasleen arteko proiektuak)	
	DBH 12-16 urteko ikasleei zein Batxiler edo Unibertsitate ikasleei tailerrak edo bulego teknikoak zabaldu (ate irekien formatua zabaldu)	
3.4. Gizarte-beharrei erantzungo dien prestakuntza berritzailea eta egokitu eskaintzeko, hezkuntza-eskaintza aztertzea eta baloratzea	Testuinguru demografikoa kontuan hartuta, hezkuntza-eskaintza aztertu, baloratu eta jarraipena egin	Elgoibarko Gobernu Kanpoko Erakundeekin lankidetzan jardun, egoera zaurgarrian dauden ikasle/familien beharrei erantzuteko Hezkuntza-eskaintzaren gaineko azterketa egin
	OLHko (Oinarrizko Lanbide Heziketako) zikloen inguruko gogoeta egitea, eskaini daitekeena aztertze; eta horretarako, oinarrizko zikloak ibilbide luzez eskaintzen diharduten ikastetxeen praktika onak ezagutu.	Oinarrizko Lanbide Heziketaren gaineko gogoeta egitea
	"Ibilgailu elektriko eta hibridoen mantenua" espezializazio-ikastaroa egonkortzea eta espezializazio ikastaroen eskaintza aztertzea, ikastetxearen eskaintza indartzeko.	Dauden espezializazio ikastaroak ikasle eta enpresen artean ezagutzera ematea

3. ARDATZA: BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA ETA LANKIDETZA		
HELBURU ESTRATEGIKOA (5)	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (12)	PROIEKTUAREN BARNEKO EKINTZAK (22)
3.5. Gizartean eta ingurunean ikastetxean berri eman, egiten den lana ezagutarazteko eta ikastetxearen irudia indartzeko.	Kanpo-komunikaziorako estrategia garatzea	Ikastetxeko web orri berria martxan jarri
		Komunikazio-kanal desberdinen erabilera sustatu

4. ARDATZA: AZPIEGITURA ETA ESPAZIOAREN BERRANTOLAKETA		
HELBURU ESTRATEGIKOA (2)	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (5)	PROIEKTUAREN BARNEKO EKINTZAK (9)
4.1. Azpiegitura eta berrantolaketari dagozkion beharrak nahiz epe laburreko aurreikuspenak aztertzea eta espazioak egokitzea	Ezenarron berogailua guneka jartzea	Termostata guneka jarri
	Pintura gela espazioa aztertu eta irteera eman	Erabilera posibleak aztertu eta hautatu
		Inmersibo eta interaktiboa martxan jarri
		Osasungintza eremua zein izango den zehaztea
	Espazio eta material komunak berrikusi eta egokitu	Irakasleen komunak berritu
Irakasleen gela egokitu		
Aisialdi denborarako kalitatezko gunekak eta arnaguneak izatea	Arnaguneak eskaini: futboliña, deskantsurako gunekak	
4.2. Meka ingurune inklusiboa eta irisgarria izan dadin urratsak ematea	Instalazioak egokitzea, desgaitasunen bat duten pertsonen premiak edo genero desberdintasunak kontuan hartuz	Espazioak egokitzea emergentziazko argiak jarriz eta larrialdi kasuetan soinuak (txirrina) bakarrik funtzionatu beharrean emergentzia argiak ere funtzionatuz
		Eraikinen eta hauen inguruko eremuen irisgarritasuna lantzea eta garatzea

5. ARDATZA: TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA		
HELBURU ESTRATEGIKOAK (3)	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (12)	PROIEKTUAREN BARNEKO EKINTZAK (15)
5.1. Industria 4.0.-n urratsak ematea	IoT (Gauzen Interneta) sakontzea	Proiektuetan parte hartu eta zabaldu
	IoM (Makinen Interneta) sakontzea	Proiektuetan parte hartu eta zabaldu
	Big Data	Big Data erabili datuak monitorizatzeko eta eraginkortasun handiagoz jarduteko
	Fabrikazio aditiboak dakarren berrikuntza potentzialitatea aprobeztatzea eta fabrikazio aditibo familia guztietara zabaltzea	Proiektuetan parte hartu eta zabaldu Mekan 3D laborategirako tokia bilatu eta martxan jarri
	Adimen Artifizialeko sistemak eta aukerak ezagutu, erabilera etikoan hausnartzearekin batera.	Familia profesionalen formakuntza bideratu eta zikloetan aplikatzea aztertu eta baloratu
	Zibersegurtasunean urratsak ematea eta mundu digitalaren arriskuekiko kontzientziak handitzea	Esperimentu pilotuak egin zibersegurtasuna lantzeko (phishing: korreo bidez linkak bidali, posta faltsuak...) Indarkeria digitala detektatzeko neurriak arakatu eta landu, eskola ingurune segurua sortzeko (GFaren ikerketa)
	Ingurune birtualak ziklo bakoitzean eskaintzen dituen aukerak aztertu eta bere erabilera sustatu	Familien beharren eta gaitasunen arabera ingurune birtualen erabilera areagotu
	Robotika arloa aztertu eta urratsak ematea	Robotika kolaboratiboa edo autonomoan garatzen ari diren proiektuak ezagutu eta nondik bideratu daitekeen aztertu
5.2. Ziklo bakoitzerako plan digitala sortzea	Ziklo bakoitzeko irakasleen kompetentzia digitala areagotzeko irakasleak trebatzea	Ikasleek sarean erabiltzen dituzten baliabideak ezagutu, euren pentsamendua nola garatzen duten ezagutu eta ikasleengana iristeko tresna egokiak aztertu.
	Zikloaren arabera ikasleen digitalizazio maila zehaztu eta prozedura adostu	Ikasgelako programazioan lanbide-arlo bakoitzari egokitutako digitalizazio plana egin Tresna digitalen erabilera egokia egitea
5.3. Soluzio adimendunak eta teknologia berriak zaintza arloan murgiltzea	Zahartze osasuntsuarekin lotutako eremua zikloetan ezartzeko lanketa egitea, genero ikuspegia kontuan hartuta eta sektorea profesionalizatzeko oinarriak jartzea	Zahartze aktiboari buruzko premia espezifikokoak aztertu (genero ikuspegia kontuan hartuta) eta premia horiei erantzuten dieten lanbide-profil berriak sortu (Genero-berdintasuneko zikloarekin elkarlanean) lantzeko gaia.
	Etxeko pertsonen ongizatea eta kalitatea bultzatzeko teknologia humanizatua garatzera bideratutako produktuak garatzea	Erizaintza, Arreta, Gizarteratze eta Dietetikako ikasleek Elgoibarren bakarrik bizi diren pertsonentzat ekintzak antolatuz: adibidez, telefono deiak, bisitak, dieta osasuntsuak eskaini...

6. ARDATZA: HEZKUNTZA KOMUNITATE SENDOA, HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARLANA OINARRI		
HELBURU ESTRATEGIKOAK (3)	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (6)	PROIEKTUAREN BARNEKO EKINTZAK (17)
6.1. Mintegien arteko elkarlana bultzatzea	Elkarlanerako espazioak eta proiektuak planifikatzea eta gauzatzea	Metodologia ezberdinak zikloen artean, praktika onak zabaldu
		Mintegien artean gai desberdinak (egunerokoarekin zerikusia duten erronka, ideia...) lantzeko urtean 3/4 ekintza/bilera bateratu antolatu
		Erronka aurkezpena beste ziklo bateko ikasleak gonbidatuekin
		Euskelec/Euskoskills ekintzak erabili ikasle zein mintegi arteko lana bultzatzeko
6.2. Irakasleen arteko harremanak bultzatzea eta elkar zaintzea	Barne-komunikazioa hobetzea	Newsletter bat egin hiru hilabeteko ikastetxeko informazioarekin "barne informatzen"
	Harremanak espazio informaletan lantzea	Telebista elikatu mintegi guztien artean, hilean publikazio bat mintegi bakoitzak
		Hiruhileko bakoitzean mintegien artean irteera-zaintza antolatzea irakasleentzat
	Irakasleak zaintzea	Irakasleen osasun mentala eta ongizaterako, estres edo arrisku-egoerak identifikatzeko bitartekoak eskaini eta protokoloak sortu. Kontziliazio familiarren alderdia ere aztertu.
6.3. Ikastetxearen partaidetza-ereduan sakontzea	Ikastetxeko erabakiak modu parte-hartzailean hartzea eta parte hartzeko kulturaren eragitea, erantzukidetasunaren logikatik	Erabaki-guneetan parte hartze zabalagoa bilatzea, prozesu bakoitzean mintegi bakoitzeko ordezkari banarekin
	Ikasleak Mekako parte aktibo bihurtzea eta harremanetan eragitea	Ikastetxeko funtzionamendu eta erabakiei dagokienean, ikasleekin zein gai landuko diren zehaztea. Adb: Bosko eguneko antolaketa ikasleen parte hartzea
		Ikasle ordezkari talde bat sortzea (beraien nahiak, beharrak jasotzeko): ordezkari whatsapp taldea sortu eta bilera maiztasuna eta gunea adostu
		Ikasleen artean berdintasunean oinarritutako harremanak ematen direla bermatzea
		Tutore irakasle taldeak 2 astetik behin ikasleekin bilera, zer moduz dabiltzan ezagutzeko
		Ikastetxeko espazioak ezagutzeko bisitak, 1. mailako ikasleentzat, 2. mailakoek gidatuz
Erronka amaieran atsedeen/zaintza irteera bat herri mailan		

7. ARDATZA: INTERNAZIONALIZAZIOA		
HELBURU ESTRATEGIKOA (2)	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (3)	PROIEKTUAREN BARNEKO EKINTZAK (11)
7.1. Nazioarteko harremanak eta proiektuak garatzea	Mugikortasunetan parte hartzeko aukera eskaintzea, ikasle zein irakasleei	Ziklo guztietan Erasmus aukera eskaini, informazioa zabalduz
	Sare internazionala (networking) sendotzea eta horretarako ingurune birtualak ematen dizkigun tresnak aprobetxatzea	Irakasleentzat formakuntza eta behaketa bitarteko mugikortasunak eskaini
		Dauzkagun sareak mantendu eta sendotu (Innotecs, Eurocom Smart)
		Atzerriko beste eredu batzuk ezagutu
		Atzerriko ikasleekin elkartrukeak egin
7.2. Ikastetxea nazioartekotzerako gaitasun eta ibilbideetan prestatzea	Internationalisation at home	Bazkide berriak sortu eta Europa edo Europatik gaindiko beste proiektu batean parte hartu
		Ikasleei atzerriko hizkuntza hobetzeko formakuntza eskaintzen jarraitu
		Atzerriko ikasleak ikastetxean jaso, beraiekin gure ikasleek duten interakzioa handitu eta bultzatu
		Irakasleei atzerriko hizkuntzetan trebatzeko dituzten aukerak aztertzen lagundu
		Eleanitz hezkuntza aukerak mantendu eta berriak eskaini
Ziklo ezberdinetako eleanitz modalitateko ikasleen erronka amankomunak bultzatu		

8. ARDATZA: JASANGARRITASUNA ETA BIOZIENTZIAK		
HELBURU ESTRATEGIKOAK (2)	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK (5)	PROIEKTUAREN BARNEKO EKINTZAK (11)
8.1. Hezkuntza komunitatearen beharrak aseko dituen jasangarritasun plangintza garatzea, Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta	Gaiaren inguruko prestakuntza diseinatu	Aditu baten formakuntza jaso
	Eraikinak eta instalakuntzak gaur egungo jasangarritasun eskaeretara egokitu	Instalazioetako ur kontsumoa murrizteko neurriak hartzea (zisternak doitu, esku iturri automatikoak) eta kontsumoen neurketak eguneratu eta ezagutu
		Ezenarroko eguzki-panelen instalaziorako dirulaguntzak eskatu
	Mugikortasun jasangarria bultzatu	Ikastetxeko ikasleen eta langileen artean garraibide jasangarriak sustatu eta baita garraio zerbitzu propioak eskaini
		Garraio-publikoa erabiltzeko sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak egin
		Garraio-bide berritzaile eta jasangarriak bultzatu (hibrido eta elektrikoak automozioan) eta hauen ezagupena zabaldu
Prebentzio Plana garatu	Eraikinen arteko mugikortasun eredua landu eta ezarri (bizikleta elektrikoa, adibidez)	
	Material eta hondakinak modu arduratsuan kudeatzen ikasi eta irakatsi	
8.2. Biozientzian murgiltzen hasia	Gaiaren inguruko ikerketa egin eta kontzeptualizazioa argitu	Norbera Babesteko Ekipamenduen erabilera bermatu
		Kontzeptualizazioa landu
		Dietetikatik jarri martxan

7 EKINTZA-PLANA

Plan estrategikoaren markotik abiatuta, eta proiektuetan ezarri diren lehentasunak kontuan hartuta, ikasturte bakoitzerako ekintza-plana sortuko da. Horretarako, txosten honekin batera landu dugun [excel tresna](#) erabiltzea proposatzen dugu eta bertan proiektu eta ekintza bakoitza zein ikasturtetan garatuko den planifikatzea jasoko da, ekintza bakoitzeko arduradunak izendatzearekin batera eta dagokion prozesuarekin lotzearekin batera.

2024-2028 Plan Estrategikoa elkarrekin eraikitzen		MEKA PLAN ESTRATEGIKOA 2024-2028				elhuyar				
Ardatzak	Helburu estrategikoak	Proiektu estrategikoak	Ekintzak	Arduradunak	KRONOGRAMA					
					2024-2025	2025-2026	2026-2027	2027-2028		
1. IKASTETXE INKLUSIBOA, PAREKIDEA ETA EUSKALDUNA	1.1. Ikasleek kalitateko prestakuntza berdintasunez eskuratzeko profi guztiarako ikaslearen premiak identifikatzea eta ahal den neurrian haien erantzuna emateko tresnak lantzea	1.1.1. Tutorizazio pertsonalizatuen sakontzea	Pertsonei oinarritako plana zehaztu							
			Tutore administratiboaren eta tutore enfermeretaren rolak bereizi eta landu, ikasleari jarraipen pertsonalizatua egiteko							
			Egoera zaurgarrian dauden ikasleei eta familiei, beraien inguruko beka edo gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa eta aholkuak eman							
		1.1.2. Ikasleen orientazio profesional, akademiko zein pertsonalari erantzutea orientazio zerbitzuaren bidez	Egoera erregulartzat behar duten migratzaileei laguntzeko neurriak hartu							
		Jatorritako ikastetxeekin zein erakundeekin zubiak eraiki, ikaslearen ibilbidea hobeto ezagutzeko								
	1.1.3. Baliabideak aztertu eta egokitzea, materialak zein pertsonalak	Hezkuntza premia bereziak dituzten eta/edo hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen jarraipena egin								
		Ikasleek ikasteko dituzten zailtasun egoerak detektatzea eta aztertzea eta aholkatzea antolamendu, metodologia edo neurri komenigarrien inguruan								
		Ikasleen ongizaterako, ikaslearen artean kalteberatasun fisiko edo mentaleko egoerak detektatzeko bame-prozedurak sortu								
	1.2. Hezkuntza komunitate osoan genero-berdintasuna sustatzea	Adikzio-substantzien abusua prebenitzeko prebentzio-karpainak egin								
		1.2.1. Berdintasun Plana berrikusi eta ikastetxean zabaldu	Irakasleek formakuntza jaso unean uneko beharren arabera							
	1.3. Euskararen biziberritzearen ekarpena egitea, ikaslearen arteko harrimankak euskaraz izan daitezkeen sustatzea eta euskara lehenezte	1.2.2. Komunikazioan guztietan berdintasuna sustatuko duen hizkuntza erabilera bermatzea	Meka irisgarria izateko premiak ezagutu eta esku-hartzeak egin (material irisgarria...)							
		1.2.3. Hezkuntzan genero-berdintasunak ezabatzea eta ziklo guztietan berdintasunez sartzeko aukera bermatzea	Klase orduetan mugikorren erabileraren auzia eztabaidatzea (debekatu edo ez) eta gaia arautzea							
		1.3.1. Euskararen ezagutza eta erabileraren eragitea, eta euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea.	Hezkuntza-ekintzak bermakusi eta komunikatu							
			Komunikazio ez sexista landu							
			Gaia ikusarazi eta lantzeko estrategiak pentsatu							
1.3.2. Euskara Batzordea irakasle eta ikasleek osatuak izatea	Hezkuntza-komunitatearen euskararen aldeko kontzientziazio-ekintzak egin (ikasleentzako erakargarri, musikarekin lotura eginez)									
	Euskararen erabiltzeko motibazioak landu, bereziki ikasleengan eragiteko									
	1.3.1.1. Euskararen ezagutza eta erabileraren eragitea, eta euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea.	Kurtsoa aurrera joan ahala gazteerara joera ekiditeko saiakerak egin								
	1.3.1.2. Euskararen ezagutza eta erabileraren eragitea, eta euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea.	Ikasleei errefortzu klaseak eskaini (euskara ikasteko orduak goizetan izatearen aukera baloratu)								
	1.3.1.3. Euskararen ezagutza eta erabileraren eragitea, eta euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea.	Irakasleak ahalbidetu eta euskararen lidergoa beren gain hartzeko lanketa egin								
	1.3.2. Euskararen ezagutza eta erabileraren eragitea, eta euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea.	A ereduko zirkontzat oinarritako hitzgi teknika sortu eta zabaldu.								
	1.3.2.1. Euskararen ezagutza eta erabileraren eragitea, eta euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea.	Euskararen Batzordearen osasuna beritu								

Behin hau landuta, ikasturte bakoitzeko ekintza-plana sortuko da, dagokion ekintza eta arduradunekin. Ekintza bakoitza ikastetxean martxan diren prozesuekin lotuko da eta prozesu horri dagokion lantaldea izango da ekintza garatzearen arduraduna. Hauek dira prozesu horiek:

1. Estrategia Berrikuntza
2. Talentua
3. Digitalizazioa
4. Jasangarritasuna
5. Ikaskuntza sistema aurreratuak

Era berean, atal hau lantzerakoan kontuan hartuko dugu proiektu estrategikoen artean ezarritako lehentasun-mailak: lehentasun baxua, ertaina edo handia.

LAN-ARDATZA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUN-MAILA
1. IKASTETXE INKLUSIBOA, PAREKIDEA ETA EUSKALDUNA	1.1.1. Tutorizazio pertsonalizatuan sakontzea	Altua
	1.1.2. Ikasleen orientazio profesional, akademiko zein pertsonalari erantzutea orientazio zerbitzuaren bidez	Ertaina
	1.1.3. Baliabideak aztertu eta egokitzea, materialak zein pertsonalak	Altua
	1.2.1. Berdintasun Plana berrikusi eta ikastetxean zabaldu	Ertaina
	1.2.2. Komunikazioan guztietan berdintasuna sustatuko duen hizkuntza erabilera bermatzea	Baxua
	1.2.3. Hezkuntzan genero-desberdintasunak ezabatzea eta ziklo guztietan berdintasunez sartzeko aukera bermatzea	Baxua
	1.3.1. Euskararen ezagutza eta erabileran eragitea, eta euskararen aldeko kontzientziazioa lantzea.	Ertaina
	1.3.2. Euskara Batzordea irakasle eta ikasleez osatuak izatea	Ertaina

LAN-ARDATZA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUN-MAILA
2. PERTSONAK PRESTATU ETA HEZI, METODOLOGIA BERRITZAILEEKIN	2.1.1. Metodologia berritzaileak guztiz ezarri familia profesional eta ziklo guztietan	Ertaina
	2.1.2. STEAM Hezkuntzan urratsak eman, emakumeengan bokazio zientifiko-teknologikoa pizteko eta STEAM gaitasunak teknologia erabiltzen ez duten beste ziklo batzuetara hurbiltzeko.	Ertaina

LAN-ARDATZA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUN-MAILA
3. BERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA ETA LANKIDETZA	3.1.1. Gizarteko beharrei erantzuten dien berrikuntza edo berrikuntza sozialaren kontzeptualizazioan sakondu	Baxua
	3.1.2. Mekak gizartean eragiten dituen aldaketa eta onurez jabetu eta sistematizatu	Baxua
	3.2.1. Irakasleon talentu berritzailea piztea	Baxua
	3.2.2. Gizarte-beharrak eta berrikuntzak ezagutzeko adimen tresnak indartzea eta horietan trebatzea	Baxua
	3.3.1. Ikerketa aplikatuko eta berrikuntzako proiektuetan parte hartzea	Baxua
	3.3.2. Enpresekin etengabeko harremana mantendu	Altua
	3.3.3. Ikastetxeen arteko harremanak sendotu, praktika onak sustatu eta topaguneak antolatu	Baxua
	3.3.4. Komunitateari zerbitzu bat emanez ikasteko proiektuak garatu (Ikaskuntza-zerbitzua)	Baxua
	3.4.1. Testuinguru demografikoa kontuan hartuta, hezkuntza-eskaintza aztertu, baloratu eta jarraipena egin	Baxua
	3.4.2. OLHko (Oinarrizko Lanbide Heziketako) zikloen inguruko gogoeta egitea, eskaini daitekeena aztertzeko; eta horretarako, oinarrizko zikloak ibilbide luzez eskaintzen diharduten ikastetxeen praktika onak ezagutu.	Baxua

LAN-ARDATZA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUN-MAILA
	3.4.3. "Ibilgailu elektriko eta hibridoen mantenua" espezializazio-ikastaroa egonkortzea eta espezializazio ikastaroen eskaintza aztertzea, ikastetxearen eskaintza indartzeko.	Ertaina
	3.5.1. Kanpo-komunikaziorako estrategia garatzea	Baxua

LAN-ARDATZA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUN-MAILA
4. AZPIEGITURA ETA ESPAZIOAREN BERRANTOLAKETA	4.1.1. Ezenarron berogailua guneka jartzea	Baxua
	4.1.2. Pintura gela espazioa aztertu eta irteera eman	Ertaina
	4.1.3. Espazio eta material komunak berrikusi eta egokitu	Baxua
	4.1.4. Aisialdi denborarako kalitatezko gunekak eta arnagunekak izatea	Baxua
	4.2.1. Instalazioak egokitzea, desgaitasunen bat duten pertsonen premiak edo genero desberdintasunak kontuan hartuz	Altua

LAN-ARDATZA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUN-MAILA
5. TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA	5.1.1. IoT (Gauzen Interneta) sakontzea	Baxua
	5.1.2. IoM (Makinen Interneta) sakontzea	Baxua
	5.1.3. Big Data	Baxua
	5.1.4. Fabrikazio aditiboak dakarren berrikuntza potentzialitatea aprobeztatzea eta fabrikazio aditibo familia guztietara zabaltzea	Ertaina
	5.1.5. Adimen Artifizialeko sistemak eta aukerak ezagutu, erabilera etikoan hausnartzearekin batera.	Baxua
	5.1.6. Zibersegurtasunean urratsak ematea eta mundu digitalaren arriskuekiko kontzientziak handitzea	Baxua
	5.1.7. Ingurune birtualak ziklo bakoitzean eskaintzen dituen aukerak aztertu eta bere erabilera sustatu	Baxua
	5.1.8. Robotika arloa aztertu eta urratsak ematea	Baxua
	5.2.1. Ziklo bakoitzeko irakasleen kompetentzia digitala areagotzeko irakasleak trebatzea	Baxua
	5.2.2. Zikloaren arabera ikasleen digitalizazio maila zehaztu eta prozedura adostu	Baxua
	5.3.1. Zahartze osasuntsuarekin lotutako eremua zikloetan ezartzeko lanketa egitea, genero ikuspegia kontuan hartuta eta sektorea profesionalizatzeko oinarriak jartzea	Baxua
	5.3.2. Etxeko pertsonen ongizatea eta kalitatea bultzatzeko teknologia humanizatua garatzera bideratutako produktuak garatzea	Ertaina


LAN-ARDATZA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUN-MAILA
6. HEZKUNTZA KOMUNITATE SENDOA, HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA ELKARLANA OINARRI	6.1.1. Elkarlanerako espazioak eta proiektuak planifikatzea eta gauzatzea	Ertaina
	6.2.1. Barne-komunikazioa hobetzea	Baxua
	6.2.2. Harremanak espazio informaletan lantzea	Baxua
	6.2.3. Irakasleak zaintzea	Altua
	6.3.1. Ikastetxeko erabakiak modu parte-hartzailean hartzea eta parte hartzeko kulturaren eragitea, erantzunkidetasunaren logikatik	Ertaina
	6.3.2. Ikasleak Mekako parte aktibo bihurtzea eta harremanetan eragitea	Ertaina

LAN-ARDATZA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUN-MAILA
7. INTERNAZIONALIZAZIOA	7.1.1. Mugikortasunetan parte hartzeko aukera eskaintzea, ikasle zein irakasleei	Ertaina
	7.1.2. Sare internazionala (networking) sendotzea eta horretarako ingurune birtualak ematen dizkigun tresnak aprobetxatzea	Baxua
	7.2.1. Internationalisation at home	Baxua

LAN-ARDATZA	PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	LEHENTASUN-MAILA
8. BIOZIENTZIAK ETA JASANGARRI-TASUNA	8.1.1. Gaiaren inguruko prestakuntza diseinatu	Baxua
	8.1.2. Eraikinak eta instalakuntzak gaur egungo jasangarritasun eskaeretara egokitu	Ertaina
	8.1.3. Mugikortasun jasangarria bultzatu	Ertaina
	8.1.4. Prebentzio Plana garatu	Altua
	8.2.1. Gaiaren inguruko ikerketa egin eta kontzeptualizazioa argitu	Baxua

8 PLAN ESTRATEGIKOAREN SEGIMENDUA

Plan Estrategikoaren segimendua, ohi bezala, hiru hileroko egingo da, finkatutako adierazleak bilakaerari jarraipena eginez. Ebaluaziorako adierazleak planaren jarraipena egiteko berriaz sortutako excel tresnan jaso ditugu. Adierazleak hiru kategoriatan sailkatu ditugu, eta ekintza bakoitzean kategori bakoitzaren esanahia jasotzen da:



					BETETZE-MAILA 2024/2025		
					Egin da	Erdizka egin da	Ez da egin
Helburu estrategikoak	Proiektu estrategikoak	Ekintzak	Arduradunak	Adierazleak	Betetze-maila	Adierazlearen informazioa	
1.1. Ikasleek kalitatezko prestakuntza berdintasunez eskuratzeko profila gutxiakako ikasleen premiak identifikatzea eta analitzen neurrian haien erantzuna emateko tresnak lantzea	1.1.1. Tutorizazio pertsonalizatuen sakontzea	Personen orientazio plana zehaztu		DORRRA: plana or da arazo; HERRA: planaren hasi gero balioz du zehaztu; BERDEA: Plana gaur zehaztu da eta martxoan da	Egin da		
		Tutore administratiboen eta tutore enplegatuen rola beraz eta beraz, kasuak jarraian personalizatu egiteko		DORRRA: Ez da rol beraz egin; HERRA: lantze hasi baina ez da gozagi ar duru beraz; BERDEA: rola aurreratu da eta ardurabaketa aurreratu da	Erdizka egin da		
		Espora zuzentzen duten ikasleak eta famila, beraz inguruko bala edo gaste zerbitzu buntzio informazioa eta aholkulariaren		DORRRA: Ez da informazioa bidu eta eman; HERRA: informazioa ahal modu eman da; BERDEA: informazioa bidu eta eman; HERRA: informazioa ahal modu eman da; BERDEA: informazioa bidu eta eman; HERRA: informazioa ahal modu eman da	Ez da egin		
		Espora enplegatuz behar duten migrazioak laguntzeko neurriak hartu		DORRRA: Ez da gaitz beraz; HERRA: gaitz egin da baina ez da neurri hartu; BERDEA: gaitz egin da eta neurri hartu da	Erdizka egin da		
	1.1.2. Ikaslearen orientazio profesional, akademiko zein pertsonari erantzuteko orientazio zerbitzuaren bidez	Jatorrizko ikasleekin zein orokorrekin zuzenki, kasuak irabiatzeko helburu ezagutzeko		DORRRA: Ez da hiru martxi egin; HERRA: hiru martxi egin da baina ez da zuzenki; BERDEA: hiru martxi egin da eta ikasleekin bidez ahozko erantzuteko baliu da	Egin da		
		Hazkuntza premia beraz egin da ikasleekin hazkuntza laguntza behar duten ikasleekin jarraipena egin		DORRRA: Ez da jarraipena egin; HERRA: jarraipena egin da baina ez da erregistratu; BERDEA: jarraipena egin da eta erregistratu eta soto martxi da	Erdizka egin da		
		Ikasleek ikasleekin dituzten zein esporekin dituzten eta zuzentze eta aholkulariaren aholkulari, metodologiak eta neurri komplementariak inguruan		DORRRA: Ez da dituzten esporekin egin; HERRA: dituzten esporekin egin da baina ez da neurri hartu; BERDEA: dituzten esporekin egin da eta neurri hartu da	Ez da egin		
		Kasuen ongaitzeak, kasuak aurreratu kalibrazio fisiko edo mentalko esporekin dituzten bakoitzeko bakoitzeko soto		DORRRA: Ez da esporekin dituzten bakoitzeko bakoitzeko soto; BERDEA: esporekin dituzten bakoitzeko bakoitzeko soto da	Erdizka egin da		
	1.1.3. Baitaldirak aztertu eta egokitzeko, materialak zein pertsonalari	Adierazle bakoitzaren abuzko prebentzio prebentzio-kampainak egin		DORRRA: Ez da kampaniak egin; BERDEA: kampaniak egin da	Egin da		
		Ikasleek formakuntza jasotzeko uneko beharrezkoak		DORRRA: Ez da beharrezko behar jasotzeko; HERRA: beharrezko behar jasotzeko da baina ez da bideratu; BERDEA: beharrezko behar jasotzeko da eta bideratu da	Ez da egin		
		Mota iragarri izateko premiak ezagutu eta esku-hartzeak egin (material iragarri...)		DORRRA: Ez da premiak egin; HERRA: premiak ezagutu da baina ez da esku-hartze egin; BERDEA: premiak ezagutu da eta esku-hartze egin da	Erdizka egin da		
		Klasen ondutuen mugimendu enbileraren aztertzeko (dibidatu edo ez) eta gaitz arazoak		DORRRA: Ez da gaitz arazo; HERRA: gaitz arazo baina ez da arazo; BERDEA: gaitz arazo baina ez da arazo	Egin da		

Ikasturte bakoitzerako planaren betetze-mailari jarraipena egiteko taulak sortu ditugu, ekintza bakoitzari dagozkion adierazleekin. Horrez gain, ondoko gelaxkan adierazlearen inguruko informazioa jasotzeko tarte dago, zenbait adierazle kuantitatibo txertatzeko, adibidez, lanketak egiteko zenbat bilera egin diren, etabar...

9 ERANSKINAK

PROZESUAREN zenbait datu:

Irakasleen Batzarreko saioak:

Saio kopurua	Saioen iraupena	Partaide-kopurua (batazbestekoa)	Emakumeak	Gizonak
6	2 ordu	37 irakasle	20	16

Talde Eragilearen saioak:

Saio kopurua	Saioen iraupena	Partaide-kopurua	Emakumeak	Gizonak
5	2 ordu	2/3	2	1

Sortutako materiala:

- Saio bakoitzeko aktak
- Saio bakoitzerako lanerako informazioa
- Saio bakoitzerako ppt.aurkezpenak

Emaitzak:

- Diagnostiko txostena
- Diagnostiko txostenaren laburpena
- 2024-2028 Plan Estrategikoaren txostena
- Plan Estrategikoaren segimendua egiteko tresna